

**HEZKIDETZA PLANA ONESTEKO ETA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN
APLIKATZEKO FORU AGINDUA PRESTATU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

Kontsulta honen xedea da jakitea zein den herritarren eta ordezkariak erakundeen iritzia, Hezkidetza Plana eta horren aplikazioa onetsiko dituen Foru Aginduaren kariatara, Nafarroako ikastetxe publikoetako eta funts publikoek mantentzen direnaren unibertsitatez kanpoko etapei dagokienez.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Foru Agindu honen xedea da erantzuna ematea gizarte esparru guztietan, baita hezkuntzaren esparruan ere, emakumeen aurkako desparekotasun eta indarkeria egoerei, kontuan hartuz hezkuntzaren bidez ezarri behar direla sistematikoki berdintasunaren ikaskuntza eta indarkeria ororen ezabaketa bermatuko duten ikaskuntzak.

Nafarroako hezkuntza sisteman Hezkidetza Planak eta horren aplikazioak ikaskuntza eta trebetasunen progresio bat ekarriko dute. Ikaskuntza eta trebetasun horiek sistematikoki eskuratu behar dira hezkuntza prozesu guztian zehar, horrela, bermatzeko ikasleek garatuko dutela berdintasunean bizitzeko eta desparekotasunari eta indarkeriari aurre egiteko gaitasuna.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Berdintasunerako ikaskuntza antolatu eta sistematizatu beharri erantzuten dio, nabarmenduz irakasleek duten erantzukizuna zeregin horretan, curriculum programazioaren eta ikasgelako eguneroko lanaren bidez.

Esparru teoriko bat eta hezkuntzaren alorrean esparruaren zehaztapena ezartzeko aukera aintzat hartzen du, eskola esku-hartzea orientatzeko adin guztietan eta, horrekin batera, irakasleei ikasgeletan plana benetan eta eraginkortasunez aplikatzen laguntzeko gaitze programa bat eta orientazio didaktikoak.

c) Foru Aginduaren helburuak hauek dira:

- Hezkidetzako ibilbide bat onestea, horrela, eskuratu ahal izateko ondoko gaitasun globala: “Bizi-proiektua aukeratu, eraiki eta bizi ahal izatea genero-baldintzatzaile gabe, ikasiz desparekotasunak identifikatzen, haien aurka borroka egiten, kulturaren, erlijioaren, gizarte klasearen, egoera funtzionalaren... esparruan berdintasunerako eskubidea egikaritzen”. Ibilbide horrek barne hartuko ditu ikaskuntza helburuak eta edukiak hezkuntza etapa bakoitzerako pertsonen, harremanen eta taldearen esparruan eta gakoak diren gaietan, hala nola: autonomia eta zaintzaren etika, independentzia eta enplegua, ahalduntzea eta gizarte parte-hartzea, sexualitatea, bidezko tratua eta indarkeriaren berriazko prebentzioa.
- Ikasgeletako aplikazioa bermatuko duten baldintzak ezartzea, eskola garapenerako hezkidetza programa baten bidez.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Ezarritako helburuak erdiesteko nahitaezkoa da esparru estrategikoa eta hezkidetza ibilbidea onestea, bai eta ere baldintza arau-emaileak ezartzea Nafarroan funts publikoek mantendutako ikastetxe guztietan eraginkortasunez aplikatuko dela bermatzeko.